

BARATZEN ARTATZEAZ.



Deus ez da ederrago laborni-etche baten aldean, nola baratze eder bat. Deus ez da ere itsusiago baratze gaizki artatua baino. Baratze eder batek etchea beztitzen du... eta azten. Baratze garbi eta gorria den etchea gori eta garbi. Eta aldiz baratzea zikin, etchea zikin.

Etche batean sartu gabe nai baduzu jakin barnekoen berri, eta bereziki ango etcheko-andrearen berri: eia langilea den, bizikaria den, garbia den etcheko-andre ura, emozu bazterretik begi-ukaldi bat baratzeari.

Ikusten baduzu itchura ona duela baratzeak, zoaz deskantchu: araberakoak atzemanen dituzu an sukaldea eta ganbera; an zoko usaindu eta pilda zikin guti; gauza guziak zoin bere tokietan. Ango aurrek matelak gorri eta soinekoak ardura churi.

Eta aldiz baratze ura alde guzietarik idekia balinbada, belar basa eta laparrez estalia, gaizki!

Batetako dena bertzeko ere bada.

Etcheko-andreari doako beraz baratzearen artatzea?

Noiz nola. Arek ditu belar aziak begiratzen, eta zoin bere tenoretan eraiten; landareak landatzen, jorratzen eta gaineratik lan puška-muška guziak egiten.

Etcheko-andreari doakobereziki baratzeari begi atchikitzea; bainan nai luke izan lagundua. Anitz etchetan uzten dituzte baratze lan guziak emaztekien gain. Ori gaizki da.

Orobat uzten dituzte erdi idekiak, etcheko eta auzoko cherri, oilo guziak an dabiltzala. Gaizki, ori.

Maizago oraino uzten dituzte baratzeak neguan sasi joaitera, edo orga bide bat bezala tinki-tinki lurra zapatua; diotelarik denbora galteza dela neguan baratze lan lurraren artatzea; ez duela berdin deusek

anbat ongi eman nai neguan. An diren aza eta belar pochika ek ein bat arta, eta zer egin ditake bertzerik neguan baratze batean?...

Asko gauza egiten ez denik. Neguan dira egin bear baratze batek galdatzen dituen lanik dorpeenak, oro *gizon lanak*.

Neguan bear da etsi inguruan baratzea, ateka bat ez chilo bakar bat neon utzi gabe. Gizon lana.

Neguan bear da aintzurtu baratzeko lurra, bi, iru aldiz, barna, barna, aal bezen barna. Frantzia beere ortan arta andirekin iraultzen edo aintzurtzen dituzte neguan baratzek. Metre erdi bat barna itzultzen dute iru aldiz lurra. Orduan lurra obeki azten da, arro-arroa jartzten primaderako. Lurra itzuliz, an iltzen dira eta usteltzen belar basa, bare eta marmutza guziak. Esi zokoetako lapar eta botiga guziak bota erdi artarat; an idorraz eta su eman, edo utz usteltzera; eta eda lurraren gainean. Gero aintzur berriz eta itzul lur guzia azpikoz gora. Gizon lana.

Gauza ona da oraino alor guzien ongarrri izpi batez estaltzea. Ongarrri ura izanik ere larria eta ez anbatekoa, on egiten dio lurrari; beroki atchikitzen du; eta primaderan aziek obeki ematen dute. Ori, artaraz geroz, lan errecha da. Ez du indar andi bat galdatzen. Bertze aldian mintzatuko gira cheetasunekin baratzeri eman bear zaioten onkalluaz.

Egun ar ezazue gogoan, ongarrri izan ala ez, are geiago ongarrria chuurra denean, bear dela, baitezpada, baratzetako lurra bi, iru aldiz, barna, barna itzuli, garbi eta arro atchiki. Ez naiz baratze zaina. Bainan sinesten aal duzue ez nitzauzuela itsura mintzo.

